



ATAZA - GORBEIA

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Azken aldian kezka sortu da otsoaren “itzulera”ren inguruan. Abeltzainek ez dute otsorik nahi artaldeak dituzten inguruetan eta mastin arrazako txakurren erabilera ugaritzen ari da. Aldi berean, honek mendizaleengan kezka sortzen du. Bilatu horren guztiaren inguruko informazioa eta ahozko aurkezpena prestatu, gelakideek uler dezaten.

Lanaren nondik norakoak:

- Bakoitzak auzian parte hartu duen pertsona baten rola aukeratu:
 - Gaiari heldu beharko dion politikaria.
 - Talde ekologistako kidea.
 - Artzain eta abeltzainen elkarteko kidea.
 - Mendizale-elkarteko kidea.
- Bildu informazioa gaiari buruz, kontuan izanda zuei egokitutako rola duen pertsonaren/erakundearen iritzia.
- Zuetako bakoitzak, zuen ikuspuntua defendatzeko eta azaltzeko idatzizko zirriborro txiki bat prestatu.
- Guztion artean egindako idatzizko zirriborroak gutxienez 200 hitz izan behar ditu guztira; erabilitako informazio-iturriak idatzita utzi.
- Zirriborroa ahozko aurkezpenaren aurretik irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan. Zuzenketa egin ondoren, audioa grabatu ahozko aurkezpenaren aurretik.